

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Urruña



Aurkibidea

Udalerria: Urruña

Sarrera



Urruña Lapurdiko kostaldeko udalerria da, Lapurdi itsasegian kokaturikoa. Herri hauek ditu mugakide: Ziburu ipar-ekialdean, Hendaia ipar-mendebaldean, Azkaine hego-ekialdean, Biriatu hego-mendebaldean, eta Bera (Nafarroa Garaia) hegoaldean. Udalerriko lurren mugan dago kokaturik Ibardingo lepoa (317 m). Auzo hauek osatzen dute herria: Antziola, Goietxe, Herburu, Kexiloa, Legartze, Mendi Xoko, Olheta, Pausu eta Unabaita.

- **Biztanleak:** 8.946
- **Euskaldunak:** %9,65

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **11**
- Pasarteak: **47**
- Transkribatutakoak: **10**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **47**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte
- IKER taldea

Hizlariak

Luixa Andiazabal (1933-2022)

Luixa Andiazabal (gaztetan Larzabal) Urruñaiko Oleta auzoan sortu zen eta bertan bizi izan zen 19 urte ingurura arte. Sei anai-arrebatan zaharrena. Amaren aita Sara ingurutik etorria omen zen eta ama ere bai ziurrenik. Aitaren gurasoak, berriz, hegoaldekoak ziren (amona Andoaingoa), baina aita dagoeneko Oletan jaio zen.

Leon Aranburu (1927-2013)



Urruñan sortua, Zokoako eskualdean. Laborantzan hazia, baina hargina izana ofizioz. Gazte gaztetatik izan zuen kargaren usaia: Bigarren Mundu Gerran hasirik, kontrabandan aritu zen Leon, edozein motako tresnak eta mozkinak pasaraziz, aleman soldaduen eta guarda frantsesen bidea saihestuz. Hala ere, Alemanek hartu zuten, 14 urte zituela, Ibardingo lepoan tranxaden egiteko.

Thérèse Aranburu Arbenoitx (1930)



Laborantzatik bizi izan da betidanik : lehengo lan moldeetat oroitu da, pozoirik gabeko baratzea, erremediorik gabeko abereak, idiak alorretan, behorrekin merkatura, herritarren arteko elkartasuna. Gerra denboran, errusiarrak bere etxean preso atxiki zituen Alemaniako armadak. Polonesak ere ikusirik gogoratu da Thérèse. Gauza arraroa : gehien gehienetan austriarrak ziren soldadu alemanen artean.

Odei Barroso Gomila (1988)



1988ko irailaren 7an jaio zen Odei, Barakaldon. Jaio eta handik gutxira Hondarribian egin zuten boladatxo bat, eta Urruñara bizitzera joan ziren gero. Urruñan bizi izan da ordutik, eta Urruñartzat du bere burua. Euskal Filologia ikasitakoa da, bertsolaria, eta "Xilaban" (Xiberu, Lapurdi eta Baxe Nafarroan) aritzen da lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei bertsolaritza irakasten eta bertso-eskolak ematen. Rap talde bateko partaide ere bada: 2ZIO. Aipatu horiei guztiei eta beste hainbat konturi buruz mintzo da Odei.

UNA-007 Hizlari ezezaguna (1949)

Jean-Jacques Larzabal (1945)



Ohalzargarai etxean sortua, hazia eta bizi izandakoa. Emaztearekin Louis XIV. jotetxea erosi zuten, Pausun. Bertako langileekin lanean ari baldin badira ere, lekuko bi mozkinekin lortu dute arrakasta: pantxeta eta tripotxa. Horiek zehazki deskribatu ditu Jean-Jacques Larzabalek, bere haur denborako eta gaztaroko ohiturekin batera.

Elixabet Lekuona Irazoki (1937)



Olhetarra da, nahiz eta Biriatur bizi elkarrizketa garaian. Laborantzaz bizi izan da beti. Olheta auzoa deskribatzeaz gain, bertako bizimoldeak ere amultsuki gogoan ditu. Elizako ohiturak, emazteen lan nekeak, kontrabanda eta euskara ere aipatu ditu.

Leon Telletxea (1925-2015)



Ubenia etxean sortua eta bizitakoa. Bordariak ziren lehen, baina sortetxea erosteko aukera izan zuen Leonek. Etxe handia, baina etxalde xumea, Mendixoko auzoko baserrien gisa. Bigarren Mundu Denboran, Alemanek hartu zuten etxeko mutilarekin batera, kontrabandan aritzea leporatzen baitzieten. Baina Leon ez zen inoiz gaueko lanean ibili. Behiekin eta baratzearekin bizi arazi zituen etxea eta etxekoak.

Maite Zozaia Goia (1936)



Urruñan sortua, Zelaia baserrian, Azkainen bizi Ganixto Baitan. Laborantzaz egin du bidea, lanmoldeen aldaketen lekukoa izanez. Lapurdin etxeak sortzen eta sortzen ikusi ditu, eta laborariek horri egokitu behar izan dutela azpimarratu. Gaztetan, "enfants de Marie" zen, bere garaiko neska guztiak bezala, eta ez zuen herriko bestetan dantzatzeko eskubiderik.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Aurkezpena eta bere izenaren jatorria

- **Hizlaria(k):** Barroso Gomila, Odei
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** UNA-008/001
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:00:07. **Bukatu:** 00:01:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Odei Barroso Gomila 1988ko Irailaren 7an jaio zen. Odei h-gabe idazteak buruhausteak eman izan dizkio batzuetan. Bi izenak ordea, ezberdinak dira h-rekin idazten dena naturatik baitator eta h gabe idazten dena berriz, mitologiatik.

Transkripzioa

- Izena eta bi abizenak?

- Odei Barroso Gomila.
 - Eta noiz jaioa?
 - Mila bederatzirehun ta laurogeita zortziko irailaren zazpian sortua.
 - Irailaren zazpian?
 - Bai.
 - Hik, Hodei, izena hatxerekin edo hatxe gabe idazten duk?
 - E... hatxe gabe. Hatxe gabe, bai. Bai, bai.
 - Eta bigarren abizena esan didak?
 - Gomila. Gomila. Hori da.
 - Eta Odei atsegin hatxe gabe, horrek emango dik, ez? [...] usten?
 - Bai. Bon hastapenean bereziki, ba denek ez pentsatuz Odei hatxerekin zela, ta ainitzetan ba gertatu izan zait, afitxaren batean edo bestean, saio baterako afitxaren batean edo bestean, hatxerekin idaztea. Bo bada diferentzia ttiki bat zeren Odei hatxerik gabekoa heldu da mitologiako jainkotik, edo ez? Odei jainkotik. Eta aldiz, hatxerekin heldu da naturako zuzenean, naturako hodeiari, ez? Beraz diferentzia ttiki bat ba... bada hor. Hori, amak esplikatu zidan aspaldi.

1.2. Harrera-familia I

- **Hizlaria(k)**: Barroso Gomila, Odei
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: UNA-008/006
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:05:03. **Bukatu**: 00:06:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Harrera-familia izatea erabaki zuten gurasoek, bere eta bere anaiaren onespenearekin. Eta bi mutiko hartu zituzten. Haur hauek etxean hartzea ez zen erraza izan, iragan zaila duten haurrak izaten baitira. Guztien artean, ordea, aurrera egin zuten.

Transkripzioa

- Hor esan duzu e... "harreran hartu genituen". Orduan ez zen bakarrik gurasoen kontua izan, edo bai?
 - E... ez, "harreran genituen" bai, tira, gurasoek e... nahia heiena zen, borondatea heiena izan zen, e... abiapuntua heiena zen, baina bidean gu geunden orduan, eta... ta beraz e... gainera, halako harrera kasuetan, e... denen onespene behar da, etxeko guziena, ta pasa behar dituzu elkarrizketak, eta heldu da pertsona bat galdetzera, ikustera etxe... zu ere etxean, zure etxean, nolakoa den, eta ze... ze familia ziren, eta nola, eta orduan, bai, bai, guri, e... gurasoek, erabakia heiena izan zen, baiña... baina ez zuten /etzuten/ baietz erran edo urratsa eman, gurekin hitz egin gabe, ta guri galdegin gabe zer iduritzen zitzaigun eta, eta eten gabe, noski, bizia erabat aldatzen zaizu. Bai gurasoena, baiña, baita zurea ere, ez? Etxe hortan bizi zira, eta bi anai datoz, eta bi anai, bai gainera behar eta arreta biziki bereziak galdegiten dutenak, ez? Ez, uste baitugu [...], har, hartu ta bi... bi gazte, nola erran, guk dugun eskemetan kokatzen diren gazteak direla, baina ez, ez. Beste iragan bat ukan duten gazteak dira, e... oinarri ba falta anitzekin, eta... ta behar ba... emozional eta... ba, tira. Lan handia galdegiten du, eta lan hortan familia guziak e... aritu behar du

beraz. Bai, erabakia gurasoena izan zen, eta ideia, baina... baina tira, denon... denon onespen eta babesarekin.

1.3. Harrera-familia II

- **Hizlaria(k)**: Barroso Gomila, Odei
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: UNA-008/007
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:06:52. **Bukatu**: 00:08:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Gurasoen asmoa etxean haur bakarra hartzea zen, baina zentruan bi anai zeudela esan zieten eta ez zituztela banatu nahi. Ondorioz, biak hartu zituzten etxean. Hasieran, gogorra izan zen. Bere amak elkartasuna adierazteko zuen joera azpimarratzen du.

Transkripzioa

- Eta batera etorri ziren biak?
- Bai... Hastapenean... gurasoek zuten ideia zen ... bat harreran, ume bat edo, hartzea. E... a'itu baitzuten irratian, eta ba gaztetxo edo ume batzuk zeudela hor, ba etxerik gabe, eta zera eta... zentro batean bizitzen, eta ba ama biziki... - nola erran ? - biziki... oso elkartasunaren balioa beti transmititu izan digu, eta harek ere, hala zuen, den... ororen gainetik ez, pixka bat. Ta orduan, ba tira bai, hastapenean zela bat hartzea. Bainan,... bazen, joan ziren eta zera, ta hasi ziren prozesu hortan, eta erran zieten: "Bai, ba begira, hemen daude bi... anai. Eta anaiak dira, eta ez ditugu ba bereixi nahi, eta bat eraman nahi, eta, eta bestea ez, eta zera..." Ta tira, batekin abiatu zen ideia, ba azkenean... bi! Bi etorri ziren, bi anaiak, anaiak baitziren heiek, eta, eta tira, ba gaiñera, buf! ez ziren /etziren/ hain... Ez dugu sekulan jakin ideia ona izan ote zen. Biak, aski konfrontazio zuten heien artean, eta tira... Ta tira-hala ibilki ziren, baina, baiña begira denbora zer den, ez, eta bizitza zer den, ba orain elkarrekin daude, ta oso ongi konpontzen dira, eta tira ba agian egindako lanak ere, ba eman ditu bere... bere fruituak, zentzu horretan ere, ez? Ho'ien harremanaren beste... ba harreman horrek har zezan beste forma bat, azkenean. Eta biziki ongi, bai. Baina tira, ideia baten, batena zen, eta bi etorri ziren...

1.4. Herriarekin duen harremana

- **Hizlaria(k)**: Barroso Gomila, Odei
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: UNA-009/006
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:01:44. **Bukatu**: 00:04:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

- **Laburpena:** Odei Urruñarra da. Herriarekin duen harremana ona den arren, herri itzalia da giro aldetik. Euskalgintzan ordea, baliabide asko ditu, herrian dauden hiru bertso eskolak esaterako.

Transkripzioa

- Esan duzu, hiru urterekin, Urruñara... Beraz esan daiteke, bon imajinatzen duzu urruñartzat izango duzula...

- Bai, bai.

- ... zure burua, eta ez dakit, nola ikusten duzu, eta nola bizi duzu Urruñara ?

- Ba, bai, ni urruñarra senditzen naiz, eta... eta betidanik, eta beti hala erran dut, ez? Eta horregatik e... uste dut e utziko diodala ene sorlekua zein izan den errateari. E... e... maiz e... Odei/Barakaldo. Eta buf, hori enetzat da... Nola erran? Erran [...] baiño. E... gainera, jendeak ez du sekulan erraiten sortu den ospitalaren izena, ez? Izena edo herria. Ni Donibaneko haurrak Baionan sortzen dira, baina Donibanekoak dira, ez? Orduan, e... nik badut hor pixka'at zera, korapilo ttiki bat horrekin, uste dut utziko diodala, erranen dut "Odei urruñarra", ta listo. Ta zeren sorlekua bai, Barakaldon, baina esplikat u dudana bezala lehen, ez, izan zen kasu berezi bat, e... tanpex sortu nintzen, ez nintzen agian han sortu behar ere, baina hala izan zen, e... gainera justu ama baitzen amaxiren... amamaren etxean, bere amaren etxean, egun hartan, eta Bilbon e... bizi da amama, eta beraz e... hala... hala gertatu zelako, ez. Eta orduan ba ni, ni urruñarra senditzen naiz, nere bizi guzia hemen eraman baitut. Azkenean, hiru urte arte zertaz gira kontziente, ez? Gauza anitz sentitu ta bizi ditugu, baina behintzat e... zangoak lurrean nun dituzun ez dakizu, ez? Ta niz beti urruñar sentitu naiz, eta hala erraten dut eta... eta tira, ba Urruñara maite dudana herri bat da, ba azkenean nere... nere herria delako, eta... Ba nahiko nuke, bizi gehio ukanen balu, duena baino, egia erran, ba pitta'at e... itzalia baita garaika, eta... baina... baina tira, hala ere bada ba elkarte hau bezain eder elkarte bat badago, Berttoli, gazteak ere mugitzen dira, lehen gazte... gazte asanblada bat bazen, orain gazte talde txiki bat bada, e... lanean ari dena, eta ez, ez... gauza biziki ederrak egiten dira Urruñan e. Baina, gehio ari naiz e... euskalgintzari edo begira baino, herriaren biziaz beraz, ez? Ba nola kafe bat hartzera heldu zira Urruñara, eta ez den nehor iñun, eta fff, ez gazte bat, baina ez da zahar edo heldu kuadrilla bat hor kafe bat hartzen... Pixka'at mugimendu falta badu, ez, herriak. Gero, egia da Urruñara dela biziki eremu zabalekoa, eta biziki ba pentze, eta zelai, eremu mendialdekoa, beraz... Etxeak biziki sakabanatuak dira, eta ez da hainbeste ba zentro edo muin baten inguruan biltzen, nahiz eta gehiena hala izan. Biziki auzo handiak ditu Urruñak, ezker eskuin, eta Lapurdiko eremuz e... herririk zabalena da, ez? Orduan e... ba tira, pixka'at sakabana, eta horren ondorio izaiten ahal dela, ez? Baina hala ere, hainbeste biztanle ukanik, ba biziki bitxi egiten du Plazara joaitea eta nehor ikustea...

1.5. Urruñako auzoak

- **Hizlaria(k):** Barroso Gomila, Odei
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** UNA-009/010
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:06:54. **Bukatu:** 00:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

- **Laburpena:** Urruñako auzoek, Oleta eta Pausuk behinik-behin nolabaiteko herri izaera dute. Beste auzo batzuk berriz, lotarako soilik dira eta bertako biztanleek Urruñatik kanpo egiten dute bizitza.

Transkripzioa

- Eta Urruña barruan, auzo edo eremu horietan berezitasunik, edo... Esan nahi dut, ez dakit, jende guztiak badu bere burua urruñar-urruñartzat, edo...?

- E... ba... ba duda nuke ze ez, ez nuke /enuke/ erranen, bon, tira, erraitekotan, ba adibidez Olheta, ba Olhetako jendeak, e... ba batzutan, ba erranen dute olhetarrak direla, ez? Ta... ta hor Olheta bada Urruñako auzo bat. Berdina gertatzen da Pausurekin. Pausu ere, ba... ba Urruñako auzo bat da, baina Pausu enetzat ere, bada herri ia-ia, ez? Orduan, berezia da, bai. Auzoren batek edo bestek, ba badu... badu izaera gehio, ez? Eta... ta agian erranen nuke auzo baino ba herritxo itxura gehio auzoarena baino. E... bai da... bai, gero auzo biziki desberdinak dira, auzo batzuk badira lotako auzo, edo... Erranen nuke ba hainbeste bizi egiten... jendeak ez duela hainbeste bizi egiten Urruñan, ez? Gehio etxea duela Urruñan, baina bizia beste leku batzutan egiten duela, ez?

2. Herria, azpiegitura

2.1. Urruñako biztanleria

- **Hizlaria(k):** Barroso Gomila, Odei
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** UNA-009/007
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:04:59. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- **Laburpena:** Zortzi mila biztanle inguruko herria da Urruña, eta hamar milara iristea du helburu Frantziako Gobernuaren laguntzak jaso ahal izateko.

Transkripzioa

- Zenbat lagun bizi da gutxi gora behera?

- Ba Urruña, hor, ba hamar milara edo ailatuko da laister, ez bada /ezpada/ jadanik e... iritsi. Ba zortzi milaren bueltan badakit. Ta gaiñera hemen, herri izaerak edo bederen, ba ez dakit /eztakit/ nik sos...estatuko sos laguntzak, eta badakit Urruñak interesa zuela hamar milara iristea duela denbora bat, Herriko Etxeak, orduan berdin hor, horren biran da, ez? Makro proiektu anitz egiten ari dira etxe bizitzak eraikitzen han eta hemen beraz... helburu eta bat badu, badu hori, ez? Baina...bai.

2.2. Herriaren egitura edo formologia

- **Hizlaria(k):** Barroso Gomila, Odei
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** UNA-009/009
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:06:54

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Urruña erditik errepidea igarotzeak, herria sakabanatu ordez, beste herriekin lotzen duela uste du. Formari erreparatuz gero, sakabanatutako etxeek osatzen dute. Hala ere, etxeak herriko erdigunera hurbildu ahala pilatuz doaz.

Transkripzioa

- Errepidea pasatzen zaio, ez dakit, herri erditik edo... Ez dakit horrek zenbateraino banatzen duen Urruña bera....

- Ez, ez... sobera ez. Erranen nuke gehio banatu baino lotzen duela errexago beste herriekin eta... ez. Bai, egia da nazional bide nagusia, ba, bete-betean pasatzen duela, ez? Baina ez, ez, erraiten nizun bezala, biziki sakabanatua da Urruña. Hemendik zoaz, ta eiten dituzu bost kilometro, ta oino Urruñan zira, beste leku batean, eta hor bapatean kriston auzoa bada. Badakit, ba, herritik ene etxera badaude hiru kilometro edo hola... Eta hemen, zentrotik hara, ba, beste herri txiki bat bezala dago ere, ez? Orduan, erran nahi dut auzo zinez beteak eta... daudela. Orduan ez da... Banatua ez nuke /enuke/ erranen. Dena den, hemen herriak biziki sakabanatuak dira justuki, etxe... ba hori... banakako etxe ainitz daude, mendialdean eta pentze aldean, ta gero ia, ba, erdigunera hurbilduz, geroz eta pilatuago dago, ez? Baina ez nuke /enuke/ erranen bideak banatzen duenik. Ez, gehio lotura bada, ta Urruña biziki, ba hori, herri zonbait baditu inguruan, orduan...

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Urruñako eskolak eta bertso eskolak

- **Hizlaria(k):** Barroso Gomila, Odei
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** UNA-009/012
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:08:12. **Bukatu:** 00:10:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Urruñan hiru eskola daude: pribatu-katolikoa, publikoa eta ikastola. Bera Donibane Lohizuneko ikastolara joan zen, txikia zenean herrian ez baitzegoen ikastolarik. Herriko ikastolaren sorrera proiektuan parte hartu zuen bere anaiarekin eta gurasoekin. Orain, bertako eta herriko beste hiru bertso-eskoletako irakaslea da.

Transkripzioa

- Eskola edo ikastola...

- Bai.

- Zer dugu Urruñan?

- Uf, e... biak, e... Bada publiko... eskola elebidun publikoa, eskola elebidun pribatu katolikoa, ikastola... beraz, bada... bada bai nun ikasia Urruñan! Eta ikastola aipatzen duzula, ni oroitzen naiz ttipiak ginelarik, gure gurasoak jo ta su ibili zirela. Ni, ni ez naiz /enaiz/ Urruñako ikastolan izana, ni ttikia nintzelarik ez baitzen ikastolarik Urruñan, ta beraz Donibaneko ikastolan

nintzen, Donibane Lohizuneko ikastolan, urruñar gehienak bezala, ez? Edo bon, tira, batzuk han, besteak... baina Urruñan ez zen ikastolarik. Eta justu nere anaia ba ttikia zela ireki zen ikastola Urruñan. Eta gurasoak, hor izan zen proiektu bat Txirri, Mirri eta Txiribitonekin garaian, e... Urruñan etxe poxpola, ba, harri bat ikastolaren alde, eta... Ba gauza guzti hori, ba gurasoak hor, hor beste hainbat gurasorekin batera, noski, baina hor oroitzen naiz hor ibili zirela. Ta lan handia. Guk parte hartu ginuen bira hartan Txirri, Mirri eta Txiribitonekin, bai diskoak grabatzen, ikusgarrietan kantatzen, ba, Urruñan guk baino ttikiagoek izan zezaten, ba, ikastola. Ta, ba, adibidez, gure kasuan, anaia... anaia Urruñako ikastolan ikasitakoa da, baina lehen... lehen belaunaldiak dira, ba hor, hor ibili zirenak, ez? Eta orduan, bai, egia erran, taulak lortu zuzten, behar adina diru, eta dena, eta eraiki zen ikastola eta gaur egun, ba ikasle pill bat ditu ikastolak. Eta beritu da geroztik, handitu da, ta leku aldaketak izan ditu, eta ikastola ederra da, eta... Ta orain ba neri lanaren bidez, ba, egokitzen zait bai Donibaneke ikastolara joaitea, nere ikastola izan zen hortara, ta baita Urruña, ba nere herriko ikastolara noa bertsolaritza erakastera hurrei. Gainera, bai ikastolan, baita ikastolaz aparte, baina ikastolan bertan, bertso eskola... bi bertso eskola daude, eta hortaz gain, azken hirugarren bertso eskola bat ematen dut ere hemen... hemen Berttolin, gaztetxoagoekin. Eta tira, ba, egian erran, Urruñan ibilki naiz lanean ere, ez?

3.2. Nola hasi zen lanean bertso eskolan

- **Hizlaria(k):** Barroso Gomila, Odei
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** UNA-009/014
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:10:45. **Bukatu:** 00:13:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Ikasketak bukatu zituenean, "Bertsolarien Lagunak" elkartetik deitu zioten, Seaskaren bitartez bertsotan irakasteko. Seaskak bertso eskolekin lotura bat behar zuen, zubi bat haurrak bertara hurbil zitezen. Horrela, elkarteak Odei hartu zuen, eskola arautuan lan egiteko.

Transkripzioa

- Beraz, lan kontuetan, esan daiteke bertsogintzaren edo bertsolaritzaren irakaskuntzan edo irakaspenean zabiltzala. Nondik nora? Nolako proiektua? Nondik nora horretan aritu...?

- Ba justu, bo hasi nintzen, Bertsolarien Lagunak elkartetik deitu ninduten, justu ikasketak bukatu nituelarik. Beraz, bukatu, ta dei bat jaso nuen erranez, ba, tira, ea aurkeztu nahi nuen lanera, eta irekiko zi... zutela postu bat. Baina hastapenean ez zen /etzen/ elkartearentzat lan egiteko, baizik Seaskan. Ea nere izena emanen ote nuen Seaskan, jakinik ba bertsolaria nintzela eta, ba, bertso irakaskuntzan ibiltzeko. Lehen Seaskak eskaintzen zuen hori, eta bertso eskolak kudeatzen zituen elkarteak. Bainan ikusten zen behar bat, lehenagotik, ikusi zuten beharra, gehio lotzearena ikastolakoa, arautukoa, demagun... erran dezagun, ez? eta bertso eskolena. Ez baitzen bestela zubirik, hor, eta hurrek ba ez baitzuten jauzia

egiten bertso eskola... bertso eskolan hasteko, ez? Ta beraz, ireki zuten postu hori, ta azkenean aldaketa bat izan zen, ta azken momentuan Seaskarentzat izan orde, ba, Bertsolarien Lagunak-ek hartu zuen bere gain erakasle hori, arautuan arituko zena ere. Ta postu baten lekuan bi ireki zituzten. Eta hor aurkeztu ginen ba ni eta... Aimar Karrika eta biok aurkeztu ginen, eta... ta tira, ba hor hasi nintzen lanean, eta ba... ba bertso... bertsolaritza erakasten, ikastolaz ikastola. Eta gero ere, ba, hori, proiektu, nola erran... zabalago batean sartu ginen azkenenean, ez? Ez da kurtsoak edo klaseak emaitera joan, eta etxera sartu ta... ta fini. Ez. Ez, ez zen / etzen/ hori gure... gure lana, ez. Gure lana bazen bertsularitza irakastea ikastoletan, baina bazen ere, ta argi zen, bertso eskolak irekitzea. Edo bederen hauspotzea eremu guzi hori sustatzea, eta bertsu eskolak ba ea pixka bat, nola erran... ideatzea, ba, ze... nola egin lan berri hori, eta nola ereman haurrak, ba bertsu eskoletara, zer eskaini, nola eskaini, nola erakatsi, eta... eta zer sortu haurrentzako, eta transmisio adar hortan, bederen, nola lan egin. Eta pixka bat, urte guzi hauetan, ibili gira horretan. Etengabe, eta... ba, tira, zenbakiak, anitzetan, ba ez dut maite bortxaz zenbakiekin neurtzea gauzak, baina bada aski adierazgarria den zifre bat, beraz, emanen dut...

3.3. Bertso eskolen bilakaera

- **Hizlaria(k)**: Barroso Gomila, Odei
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: UNA-009/015
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:13:46. **Bukatu**: 00:15:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Hasieran, zortzi bertso eskola zeuden soilik Ipar Euskal Herrian. Egun, ordea, hogeita hamabi dituzte eta berrehun ikasle baino gehiago.

Transkripzioa

Hasi ginelarik, askoz baliabide gutio zeudelako, noski, ba hortara bideratuak. Zer zeuden? Zortzi... bederatzi bertso eskola, eta ba erranen dugu berrogei bat haur, edo berrogeita bost bat haur, berrogeita hamar bat haur eta gazte bertso eskoletan. Eta gaur iritsi da eguna nun hogeita hamabi bertso eskola ditugun, eta berrehun ta hirurogei haur eta gazte dauden bertso eskoletan. Ez? Orduan... Eta ba garaiko irakasle postu hori pasa zen bira gurekin, gero hirura, ta orain gaude lau... lau erakasle lanean. Eragile bat ta idazkari, ta lan guzi hoiek egiten dituen beste bat... Beraz, aski bon... tira proiektua handitu da ainitz. Eta, egia erran, leku ainitzetara iristen ari gira eta... Eta orduan, tira, egiten den lanak, ba, nik uste ba merezi izan duela, eta merezi duela, eta... Gauza anitz gaizki eginen ditugu, eta beste batzuk ongi, eta helburua da ba hobetzea, eta eroriz ikastea, akatsak eginez zuzentzen jakitea, eta ba bederen borondatea, nola erran, borondatea beti ona da, eta dugun nahia ona da. Beraz, hobekio edo gaizkio bainan hortan gira eta indar eta gogo biziz.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Baserrian bordari 1969 arte (UNA-005/002)

Umetan baserritik bizi ziren: esneen behia saltzen zuten, baratzea landu... Ahal zen bezala ateratzen ziren aurrera. Etxean bordariak ziren; nagusia nongoa zen azaltzen du; 1969an erosi ahal izan zuten etxea.

2. Esnetarako behiak eta idiak etxean (UNA-005/006)

Esnetarako behiak zeuzkaten etxean: behi haiek nolakoak ziren azaltzen du. Baserriko lanak egiteko idi pareak zuten; behiak baino gehiago zaintzen zituzten idiak. Behiak eta idiak bereizita edukitzen zituzten.

3. Behien eginkizunak eta artoa (UNA-005/008)

Behorra zertarako erabiltzen zuten azaltzen du. Artoa udan eragiten zuten eskuz, eta aitzurrez jorratzen zuten.

4. Artoa kapetatzen (UNA-005/009)

Artoa igitaiarekin kapetatzen zuten. Kapetak nola garraiatzen zituzten azaltzen du.

5. Oraingo lan-tresnak ikusita atzera begira (UNA-005/010)

Oraingo laneko tresnak ordukoen aldean jarrita, eroak zirela uste du Leonek. Gerora etorri ziren aurrerapenak; 1960an ekarri zuten lehenengo traktorea, hiru lagunak artean erositak: traktorea txandaka erabiltzen zuten.

6. Belarretako lanak (UNA-005/011)

Auzoen artean elkarri laguntzen zioten belarra idortzen. Belarretako lanetarako nola moldatzen ziren azaltzen du.

7. Belarra metatzen (UNA-005/012)

Belarra metatu egiten zuten. Aitak garrantzi handia ematen zion belar guzti-guztia metatzeari.

8. Belarra idortzeko moduak (UNA-005/014)

Lehen belar idorra orgatan garraiatzen zuten. Lastoa pilotzeko ez zituzten metak egin behar, hartarako leku aproposa baitzeukaten. Etxearen egitura nolakoa den azaltzen du.

9. Ogia etxean egiten zuten (UNA-005/015)

Lehen ogia egiten zuten; selaurura eramaten zituzten zakuak bizkarka. Amak irinarekin egiten zuen ogia etxean; etxean labea zeukaten.

10. Etxeko janaria: ogia, txerrikia eta oilaskoa (UNA-005/016)

Arto gutxi landatzen zuten eta behientzat izaten zen. Ez dute sekula egin artotarik etxean, ogia egiten baitzuten. Ogi-taltoa amak nola egiten zuen azaltzen du. Txerrikia eta oilaskoren bat jaten zuten: oilaskoa okasio berezietarako izaten zen.

11. Txerria hiltzeko ohiturak eta teknikak (UNA-005/018)

Txerri-hiltzaile gehiago zegoen lehen txerri-gizentzaileak baino: haietako batzuk aipatzen ditu. Etxean txerri bat edo bi hiltzen zituzten. Txerria txikitzeko auzoak etortzen ziren. Txerria hiltzeko zer teknika erabiltzen zituzten azaltzen du.

12. Txerrikia kontserbatu eta jan (UNA-005/020)

Txerriekin zer janari egiten zituzten aipatzen du. Txerriaren atalak gazi-askan gordetzen zituzten kontserbatzeko.

13. Eguneroko gosaria eta etxeko mutila (UNA-005/022)

Egunero xingarra eta arrautza gosaltzen zuten. Etxean mutil bat izaten zuten, ordaindu egiten zioten baserriko lanetan laguntzeagatik. Haren lan-baldintzak nolakoak ziren aipatzen du.

14. Etxean izandako mutilen bizitza (UNA-005/024)

Etxean mutila egoten zen, eta familiakoa izango balitz bezala tratatzen zuten. Mutil haren bizitzari buruz hitz egiten du. Gerora Irungo mutil bat izan zuten etxean.

15. Aita gerrara joateko deitu zutenekoa (UNA-005/026)

Aita gerrara joateko deitu zutenekoa kontatzen du. Aita preso militar izan zuten 5 urtez. Azkenean aske utzi zuten.

16. Alemanek etxeko mutila eta Leon preso eraman zituztenekoa (I) (UNA-005/028)

Etxeko mutila eta Leon preso eraman zituzten behin alemanek: kontrabandoa zegoen 1944an, eta beraiei leporatu zieten hartan aritzea.

17. Alemanek etxeko mutila eta Leon preso eraman zituztenekoa (II) (UNA-005/030)

Alemanek preso eraman zituzten 5 egun kontrabandoan aritu izana leporatuta. Alemanak ez ziren bortitzak izan tratuan. Azkenean askatu egin zituzten, eta ez zuten harrapatu kontrabandoan ibili zena.

18. Eskolara joateko ohiturak (UNA-005/034)

Urruñako eskolara joaten zen, etxetik 3 km-ra. Egun osoz joaten ziren hara, eta lehengusinen etxean bazkaltzen zuen. Mutilek eta neskek bereiz ikasten zuten. Euskaraz hitz egiteagatik zigortu egiten zituzten eskolan.

19. Euskara batua eta eskualdeetako euskara (UNA-005/037)

Hazparne aldeko euskara gustatzen zaio. Euskara batuari buruzko iritzia ematen du.

20. Bertso eskolen hedadura eta transmisioaren garrantzia (UNA-009/017)

Hasieran Lapurdin zentratu ziren arren, bertso eskola berriak zabaltzen joan dira. Zuberoan eta Nafarroa Beherean ere badaude. Bertsoaren transmisioari begira, berarentzat gakoa bertsoa plazerarekin lotzea da. Euskararen beste irudi bat erakutsi nahi dute, plazerari eta aisiari lotuta dagoena. Bertsoak kultura herrikoian bere funtzioa izan behar du.

21. Nola bilakatu zen bertsolari? (UNA-009/019)

Donibaneko eskolan bere lagunak bertsoan ibiltzen ziren arren, bera 13 urterekin hasi zen bertsoan amak bultzatuta, Ziburun ireki berri zuten eskolan. Ordutik, bertsolaritza munduan sartuta dago.

22. Laguna eta lankidea (UNA-009/021)

Aimar Karrika, bere aspaldiko laguna izateaz gain, egun bere lankidea da. Odeik asko eskertzen du bere adisketasuna.

23. Bertsolaritza: zaletasuna ala lanbidea? (UNA-009/023)

Bere lana (bertso irakasle) eta zaletasuna (bertsoa) lotuta daude. Hala ere, badaki lana eta aisia bereizten, nahiz eta lana bertsolaritza gustatzen zitzaiolako lortu zuen.

24. Ikasketak Bilbon (UNA-009/024)

Euskal Filologia ikasi zuen Bilboko Deustuko Unibertsitatean, han familia eta lagunak zituelako. Irakasle onak izan zituela onartzen du, baina unibertsitateko giroa nahiko arrotza egiten zitzaion.

25. Euskalkia eta bere hizkera moldatzea I (UNA-010/002)

Odeiek ez du iparraldean erabiltzen den -r soinua berdin erabiltzen, eta, sarri, hori entzunda bere jatorria zalantzan jartzen dute. Bere euskararengatik, nongoa ote den galdetzea ez du gustuko, bera uruñarra baita eta berak duen euskara hori baita.

26. Euskalkia eta bere hizkera moldatzea II (UNA-010/003)

Hizkeraren inguruan: berak eskolan ikasitako euskara batua hitz egiten du, lapurtar ukitu batzuekin. Gainera, zonaldearen arabera bere hizkuntza egokitzeko ahalmena du.

27. Euskalkia eta bere hizkera moldatzea III (UNA-010/004)

Dagoen tokian dagoela, bere euskara tokiko euskalkira moldatzen saiatzen da. Bertsoan kontzienteki egiten du aldaketa hori, komunikazioan gertutasuna lortzeko.

28. Euskalkien arteko mugak I (UNA-010/005)

Egun, garai batean zegoen egoerarekin alderatuz, euskalkien arteko muga lausotu egin dela uste du. Jendea gehiago mugitzen da eta, ondorioz, euskalki asko entzun ditzakegu herri batean.

29. Euskalkien arteko mugak II (UNA-010/007)

Euskalkien arteko mugak lausotu diren arren, eta euskaldunon arteko komunikazio hobetu, Odeien aburuz bide horretan gauza batzuk ere galdu dira. Horien artean, euskalkien aberastasuna.

30. Euskalkiak eta euskara batua Iparraldean (UNA-010/009)

Euskara batuarekiko dagoen bazterketa konplexutik dator. Iparraldean belaunaldi askotan euskararen transmisioa ez da eman, konplexu horrengatik. Horren aurrean, gure hizkuntzak irautea nahi badugu, azkarragoak izan behar dugula dio.

31. Zer ematen dio bertsolaritzak? (UNA-010/011)

Bertsogintzaz maiteminduta dago. Hasieran, beldur handia zion oholtzara igotzeari, baina pixkanaka beldur horiek gainditzen joan da. Badaki ez duela bertsotan nahi beste emango, oraindik beldur baita. Hala ere, garrantzisuena bidea da.

32. Bertsolaritza eta rapa I (UNA-010/012)

Bertsolaritza eta rap-a mundu ezberdinak dira. Batean egiten duenak, ordea, besterako balio dio. Bertsotan ez da arriskatzeko gai emozionalak jorratzera, plazan egin behar baitu. Rapean, aldiz, bakardadean sortzen duenez, bere alderdi emozionala jorratzeko gai da.

33. Bertsolaritza eta rapa II (UNA-010/013)

Bertsotan ez bezala, rapean egiten du eta horrek onurak ekartzen dizkio. Azken batean, bere bizpenak, kontzertuan izan dituenak, edo aurrekoak, taldekideekin elkarbanatu ditzake.

34. Autoekoizpenaren gorabeherak (UNA-010/014)

Bere rap taldeak bere kanta zein kontzertuak autoekoizten ditu. Horrek lan handia eskatzen duela badakien arren, nahi dutena nahi dutenean egiteko askatasuna ematen die. Horrez gain, badaki taldearen onurarako sare sozialak behar dituztela, berak gustuko izan ez arren.

35. Zer da rap musika zuretzat? (UNA-010/016)

Odeirentzat rapa ez da hitz jario hutsa, hitz horiek musikaren denborekin ongi txertatzea baizik. Rap-a dena da eta aldi berean ez.

36. Proiektuaren inguruko iritzia (UNA-010/019)

"Gazte Gara Gazte" proiektua oso baliagarria dela uste du. Hizkuntza aldetik, testigantzen bilketa handi bat izateaz gain, hizkuntzaren garapena ikus daitekeelako belaunaldi ezberdinetako hizlarien hizkuntza alderatuz.

37. Zer bilatuko zenuke Ahotsak.eus-en? (UNA-010/020)

Testigantza bat bilatu nahiko balu, zaharren testigantzetara joko luke, gai zehatz baten inguruko hiztegia aurkitzeko. Alegia, lan kokretu bat zuen pertsona baten etxeko hiztegi zehatza bilatuko luke, bere hizkuntza aberastuko lukeelako.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com